




Partaidetzan berrikuntzak sartzeko ilab-en proiektuak identifikatu, esperimentatu eta transferitzeko oinarriak



PARTAIDETZAN BERRIKUNTZAK SARTU!


**esperimentaziorako eta transferentziarako
oinarriak**

AURKIBIDEA

1 HERRITARREN PARTE-HARTZEAREN ILAB-A – PARTE-HARTZEAN BERRITZEKO SAREA	3
2 PROZESUAREN DIAGRAMA	4
1. fasea: Proiektu esperimentalak identifikatzea	4
2. fasea: Proiektu esperimentalak hautatzea.....	6
3. fasea: Proiektu esperimentalak martxan jartzea	16
4. fasea: Proiektu esperimentalen artean lankidetzan eta elkarrekintzan aritzea	18
5. fasea: Emaizak ebaluatu eta transferitzea.....	21
I. ERANSKINA-Proiektu esperimentalen prozesuaren diagrama.....	24
II. ERANSKINA-OGP Euskadiren 2018-2020 ekintza-planaren 3. konpromisoaren esparruan garatutako proiektu pilotuak	25

1 HERRITARREN PARTE-HARTZEAREN ILAB-A – PARTE-HARTZEAN BERRITZEKO SAREA


Herritarren parte-hartzearen ilab-a OGP Euskadiren 2018-2020 ekintza-planaren barruan sortu da. Plan horren helburua da, hain zuzen ere, **herritarren parte-hartzean berritu** nahi duten **eragile** publiko, pribatu eta komunitarioen **sarea osatzea**. Horretarako, sare horrek bete beharko lituzkeen funtsezko **hiru zerbitzu** definitu dira:



Eragile motor, aktibo eta latenteen sarea da ilab, oraindik eratu ez dena eta bere ibilbideari hasiera emango diona, gidari izango direla koordinazio-taldea (Eusko Jaurlaritza, Innobasque eta Gipuzkoako Foru Aldundia) eta erakunde publiko, pribatu eta komunitario desberdinez osatutako 3. konpromiso-taldea, **2018-2020 ekintza-plana** garatzea helburu izanik.

Agiri honek **oinarri partekatu batzuk ezarri** nahi ditu, ilab-en etorkizuneko berrikuntza-proiektu esperimentalen arteko harremana antolatzeko. Proiektu horiek eragile aktiboek eta eragileen sareak berak (eragile motor, aktibo eta latentez osatuak) sustatuko dute, ikasteko eta berrikuntzan aritzeko, esperimentu horietan sortutako balioaren arabera.

Honako hau izan da abiapuntua: **2018-2020 ekintza-planaren 3. konpromisoan zehar garatu diren proiektu pilotuekin jarraitu den prozesua. Proiektuok honako hauek dira: Aurrekontu irekiak; Partaidetza osasungarria; Thinking Fadura eta Etorkin Rekalde**. Proiektuek ikaskuntza erabilgarria eman dutela ulertu da, eta horien edukia agiri honen II. eranskinean laburbildu da.



2 PROZESUAREN DIAGRAMA

Elkarlana esperimentazio-proiektuen eta ilab-en etorkizuneko sarearen artean egituratu nahi dugu, **eraikitzen ari den prozesu ireki baten bidez**. Prozesu horretan, **5 lan-fase hauek zehaztu ahalko lirateke**:



IKASITAKOAK: Behin ilab-en sarea eratuta, lan-prozesu hori beste erakunde publiko, pribatu eta komunitario batzuen ekarpenekin egiaztatu eta aberastu ahalko litzateke.


1. fasea. Proiektu esperimentalak identifikatzea

Sarearen ahalmena palanka kritikoa izango da herritarren partaidetzan berrikuntza sustatzen duten proiektuak identifikatzeko orduan. **Ondorioz, forma edo eduki berriak aktibatzeke proposamenak eta ideiak egin ahal izango dituzte bai eragile publikoek, bai eragile pribatu eta komunitarioek, espazio motorraren barruan aldez aurretik ezarritako prozedurekin bat.**

- **Erakunde publikoek** sareari proposatu ahal izango dizkiote, esaterako, elkarlanean testatu behar diren proiektuak (gaitasunak eta ezagutzak batuz), edo irtenbide berritzaile bat bilatzeko orduan herritarren partaidetza baliatuko duten beharrianak edo erronkak.
- **Eragile pribatuek eta komunitarioek** beren ideia berritzaileak partekatu ahal izango dituzte, besteak beste herritarren partaidetzan berrikuntzak sartzeko. Bestalde, partaidetzan berrikuntzak sartzeko proiektuen sustatzaile diren aldetik, gaitasunak eta baliabideak batzeko espazio gisa erabili ahal izango dute sarea.

Ilab-etik herritarren partaidetzan berrikuntzak sartzeko proiektuak jaso eta identifikatzeko mekanismo irekiak ezarri beharko dira, esperimentatze aldera. Horretarako, honako prozesu hauek baliatu ahal izango dira, besteak beste:

- **Dei irekia**, proiektu esperimentalen hautagaitza posibleak jasotzeko. Bertan, edozein eragilek (publikoa, pribatua nahiz komunitarioa) ilab-en esku jarri ahalko du herritarren partaidetzan berrikuntzak sartzeko proposatzen duen proiektua edo proiektuaren ideia, pilotatua izan dadin.
- **Erronda instituzionala** OGP Euskadin parte hartzeko konpromisoa hartu duten erakundeen artean, herritarren partaidetzan berrikuntzak sartzeko proiektuak (dagoeneko martxan edo sortze-fasean daudenak), pilotatu ahal direnak, loratu daitezzen.
- **Beharizana edo lehentasuna**, erakundeek edo/eta gizarte zibil antolatuak edo ez-antolatuak antzemandakoa, herritarren partaidetzan berrikuntzak sartzeko orduan aurrera egiteko (gaia, bitartekoa, tresna, prozesua eta abar).




Era honetako mekanismoek bermatuko dute, alde batetik, jasotako proiektuak askotarikoak izatea (batez ere, eragile sustatzaileen mota kontuan hartuta). Hala, abiapuntuan konpromiso instituzionala duten proiektu jakin batzuk egongo lirateke (ezartzeko benetako aukerak dituztenak), eta Euskadin antzemandako erronka edo beharizan errealak bideratutako proiektuak, aurrera egiteko beharizana dutenak.



IKASITAKOAK: Proposamenen hiru iturri horiek testatu dira OGP Euskadiren 2018-2020 ekintza-planaren 3. konpromisoaren pilotatze-fasean. Pilotatze honetatik ateratako lehen ikaskuntzetako bat honako hau izan da: garrantzitsua da proiektuak lantzen duen gaiaren gaineko eragileen lidergotza hasiera-hasieratik edukitzea, proiektuaren diseinua, garapena eta ebaluazioa erronka ebaztera bideratu daitezzen eta proiektuari jarraitasuna eman ahal izan dakion, baldin eta arrakastatsua baldin bada.

KOMUNIKAZIOA: Proiektu esperimentalak identifikatzeko fase honetan, ahalegin handia egin behar da informazioa komunikatu eta hedatzeko orduan. Lan hori, gainera, nahitaez egin beharko da elkarlanean, arrakasta izan dezan. Ondorioz, erakundeek dituzten bitartekoak erabiltzeaz gain (gizarte-sareak, mailinga eta abar), beharrezkoa izango da ilab-eko eragileek beren komunikazio-sare propioak aktibatzea, eragina biderkatzeko. Sarean informazioa hedatzen ez bada, konplikatu izango da eragile eta proiektu berrietara iristea.



2. fasea: Proiektu esperimentalak hautatzea

Ilab-en etorkizuneko proiektuek honako hau izango dute helburu: herritarren partaidetzan berrikuntzak (edukian edo forman) sartzeko proposamen bat testatzea, prospektiba, esperimentazioa edo/eta transferentzia sortuko dituen.

Proiektua ilab sarearen bidez babestu ahal izateko, **lagundu egin beharko du ilab-en helburuetan, ezaugarri jakin batzuk bete beharko ditu (proiektu esperimentalak zer irizpide edo ezaugarri betetzea komeni den), eta lankidetzarako ezartzen diren prozedurak eta mekanismoak jarraitu beharko ditu (adibidez, emaitzak transferitzea).**

**NOLAKO PROIEKTU
EDO EKIMENAK
BABESTU DITZAKE
ILAB-EK?**



Ilab helburuak

Partaidetzan
berrikuntzak
sartzeko
esperimentazio,
transferentzia
edo
ebaluaziorako
proiektua



Ezaugarriak


Proiektuak
esperimentazio
eta
transferentziako
gutxieneko
ezaugarri edo
irizpide batzuk
bete beharko
ditu




Lankidetz

Proiektua lotu
egin beharko da
sarean eta
lankidetzan lan
egitera, gobernu
irekiaren
printzipioak
betez lan egitera

Edonola ere, beharrezkoa izango da **hautaketa-mekanismo bat zehaztea, objektiboki haztatu daitezkeen irizpideen arabera, eta prozedura bat ezartzea** (nork, nola eta noiz), ilab proiektuak zeintzuk izango diren hautatzeko ezaugarri egokiak betetzen dituzten proiektu edo proposamenen artean. Horretarako, balorazio-fitxa bat bete beharko da, eta, horren bidez, proiektu esperimentalak ebaluatu eta hautatuko dira.



Gainera, hautaketa-mekanismo bat ezarri ahal izango da. Hala, lankidetz eta aberaste kolektiboko prozesu askotariko baten emaitza izango dira ilab-ek hautatutako proposamenak, sinatutako gobernantza-ereduan ezarritakoaren esparruan, eta, era berean, hori gauzatzeko beharrezko bi oinarriak kontuan edukiko dira: herritarren partaidetzarako ideia berritzailea (zer), esperimentazioaren aldeko testuingurua eta diseinua, egikaritzeko behar diren aktiboak barne hartuko dituen (nola).



Mekanismo hori urtero aktibatu ahalko litzateke, esaterako. Hala, deia egingo litzateke, urte horretarako esperimentazio-proiektu posibleak jasotzeko, eta sarean lankidetzan aritu eta elkar aberasteko prozesua aktibatuko litzateke. Interesgarria litzateke **deialdi ireki honen abiapuntua ilab-en alde aurreko oinarritzko diagnostikoa (talde eragilea)** izatea. Bertan, berariaz adostu beharko lirateke ekitaldian zehar proiektua jorratu ahal izateko erronkak, interes-eremuak eta lehentasunezko prozesuak (etorkizuneko azterketetan edo identifikatutako hobekuntza-arloetan oinarrituta).



IKASITAKOAK: 2018-2020 ekintza-planaren esparruan garatutako proiektu pilotuak modu irekian identifikatu dira, eta azken hautaketa-prozesua, bideragarritasunaren, edukien alagarritasunaren eta lurralde-dimentsioaren irizpideen ikuspegitik, 3. konpromisoko koordinazio-taldeak egin du. Ilab-a martxan dagoenean, proiektu esperimentalak hautatzeko prozesua gizarte zibileko eragilean partaidetza aktiboarekin egin beharko litzateke.

OGP Euskadi Planaren 3. konpromisoaren esparruan egindako elkarlanean oinarrituta, hainbat hautaketa-irizpide proposatu dira, hiru urratsetan taldekatuta, zeintzuk ondoz ondo aplikatuko baitira ondoren baloratzen diren proiektuetan:

**1. URRATSA**OINARRIZKO
irizpideak

“Mozketa” irizpideak dira, horiek urratzen dituzten proiektuak ezingo baitira sartu hautaketa-prozesuan

**2. URRATSA**BALORAZIO-
irizpideak

Behin proiektuak ilab aberasteko prozesuan sartzen direnean, irizpide horiek aplikatzeari esker zehaztu ahal izango da zeintzuk diren potentzial eta balio erantsi gehien duten proiektuak (banakako balorazioa)

**3. URRATSA**HAUTAKETA-
irizpideak

Ondoen baloratutako proiektuen artean, ilab-ek babestu beharreko proiektuen azken hautaketa egin beharko da, oreka lortzeko ahalegina eginda (baterako balorazioa).

1. URRATSA - OINARRIZKO irizpideak

Honako mozketa-irizpide hauek betetzen dituztenak izan ahalko dira ilab-ek sustatuko dituen proiektuak:

- ✓ Proiektuak ilab-en helburuetan laguntzen du – BAI / EZ
 - Herritarren partaidetzaren arloan esperimentazioan, transferentzian edo/eta prospektiban laguntzen duten proiektuak
 - Ilab-en talde eragileak proposatzen dituen urteko lerro estrategikoetan laguntzen duten proiektuak
- ✓ Proiektuaren helburua herritarren partaidetza berrikuntza sartzeari da – BAI / EZ
 - Herritarren partaidetzarako hiru dimentsioetakoren batean sartutako proiektuak¹: partaidetza zerbitzu publikoaren diseinuan / partaidetza plan edo politika publikoaren diseinuan / ezarpenean / ebaluazioan, partaidetza lankidea
- ✓ Proiektuak gobernu irekiaren printzipioei jarraikiz lan egiteko konpromisoa hartzen du – BAI/EZ
 - Proiektua gardentasunez aritzen da, sareko eragileekin lankidetzan, eta emaitzei eta inpaktuei buruzko kontuak ematen ditu
 - Ikaskuntzak partekatze eta prozesua eta emaitza komunikatzeko konpromisoa hartzen du

Oinarrizko irizpide horiek betetzen dituzten proiektuak (balorazio tekniko) lehen aipatutako aberaste-prozesura pasatuko dira (IDEIA – TESTUINGURUA eta AKTIBOAK), ondoren baloratzeko

2. URRATSA - BALORAZIO-irizpideak


Proiektuek lehen urratsa gainditzen dutenean (oinarrizko irizpideak betetzen dituztelako), ilab-a aberasteko prozesuan parte hartu ahal izango dute. Prozesu horren ostean, proiektuak **bi**

¹ Demokraziari eta herritarren parte-hartzeari buruzko Euskadiko Liburu Zurian zehaztutako herritarren partaidetzarako ereduak

irizpide kritikoren arabera baloratuko dira, sareko laborategiaren esparruan²: ahalmen berritzailea eta transferentzia sortzeko gaitasuna.

BERRIKUNTZA

Proiektuen ahalmen berritzailea berrikuntzaren lau dimentsioen arabera baloratu beharko da: zer, nola, nork eta zertarako. Berrikuntza elementu berritzaile bat (edo lehendik ezagutzen diren elementuen konbinazio berritzailea) sartzea dela ulertuko da, gure inguru hurbilean dagoena baino balio gehiago ematen laguntzen duela (berrikuntza areagotzailea; ez soilik disruptiboa). Lau dimentsio horiek zehaztuko dute proiektuaren potentzial berritzailea, baina horrek ez du esan nahi guztietan berritzaileak izan beharko dutenik (gerta daiteke eremu batean edo batzuetan proiektua bereziki berritzailea izatea, baina ez gainerakoetan).



- **Berritzailea ZER kontzeptuan:**
 - Herritarren partaidetzaren arloan kontzeptualizazio (diseinu), ezarpen edo ebaluazio berritzailea proposatzen du.
 - Herritarren beharrian edo eskari baten ikuspegi holistikoa (erantzun integrala, dimentsio anitzeko begirada) sartzen du, paradigma berriak sozializatzen laguntzeko (ezagutza librea, kode irekia, jabetza banatua, gizarte-klausulak eta abar)
 - Landu ohi ez den gai bat jorratzen du, herritarren partaidetzaren bidez edo herritarrek eskatu duten eta eragina sortzen duen arlo baten bidez³
 - Irtenbide edo bide berritzaile bat proposatzen du, beharrian/betebehar juridiko/administratibo baten gainean
- **Berritzailea NOLA kontzeptuan**
 - Herritarren partaidetza jorratzen du, metodologia, prozesu edo bitarteko berritzaile baten bidez⁴
 - Institutioaren eta herritarren artean lehendik ez zegoen lankidetzaharremanerako esparru bat sortzen du
- **Berritzailea NORK kontzeptuan**
 - Herritarren partaidetzarako oztopoak dituzten kolektiboen partaidetza aurkitzeari lehentasuna ematen dio
 - Prozesuan aztertuko den gaiaren gainean ikuspegi-aniztasuna bermatzen duten eragileak eta pertsonak sartzen ditu

² 2019ko maiatzan egin zen prozesu irekian antzemandako ezaugarri nagusietan oinarrituta daude irizpide horiek. Prozesuan, zehazki, 250 eragile baino gehiagok parte hartu zuten, online inkesta baten bidez, 2018-2020 ekintza-planaren esparruan egindako pilotuak hautatzeko. Esperimentatzeko elementu kritiko eta berrikuntza-plano desberdinak aipatzen dira ezaugarriotan. Era berean, inkesta honi esker identifikatu ahal izan ziren herritarren partaidetzan berrikuntzak sartzeko orduan interes gehien pizten duten gaiak eta metodologiak.

³ Honako hauek dira OGP Euskadi Planaren 3. konpromisoko pilotuak diseinatzeko orduan herritarrei zabalik egon den kontsulta-prozesuan lehenetsi diren gaiak: Parekidetasun eza / gizarte-ongizatea, ingurumena, berdintasuna, osasuna, kolektiboak: gazteak, emakumeak, parte hartzeko zailtasunak dituzten kolektiboak

⁴ Honako hauek dira OGP Euskadi Planaren 3. konpromisoko pilotuak diseinatzeko orduan herritarrei zabalik egon den kontsulta-prozesuan metodologiari dagokionez lehenetsi diren elementuak: online eta offline geruzak uztartzen dituzten prozesuak eta herritarren laborategiak

- Talde eragile bat sortzeko proposatzen du, erantzukizun tekniko eta politikoa duten pertsonen parte har dezaten, gizarte-eragileekin eta herritarrekin batera
- **Berritzailea ZERTARAKO kontzeptuan**
 - Instituzio sustatzailearen barne-prozeduretan aldaketak bultzatzen ditu
 - Lehendik interes-gatazka bat izan dezaketen gaiak konpontzen saiatzen da (maila sozialean edo instituzioen eta herritarren artean)
 - Erkidegoaren autonomia eta autokudeaketarako nahiz antolaketarako gaitasuna sustatzen ditu
 - Prozesuetan baliabideen banaketa eta eraginkortasuna (ekonomian eta denboran) hobetzen ditu



TRANSFERENTZIA

Ilab-en oinarri den sarean ikaskuntza-erkidego bat sortzeko proposamena dela eta, beharrezkoa da proiektuak transferitzeko ahalmenean jartzea arreta, eta, beraz, irizpide hori erabakigarria izango balorazioan. Proiektuetan nahitaezkoa izango da:

- **Transferitzeko gaitasun argia izatea** - epeen arabera eta eskuragarri dauden baliabideekin transferitu daitekeen gailua identifikatu eta diseinatzeko gaitasuna
- **Ebaluazio-proposamen bat sartzea** - kontuan hartuz pilotuaren bideragarritasuna, denbora, kostua, arriskuak, onurak, ikaskuntzak eta abar
- **Komunikazio-proposamen bat garatzea** – bai prozesuan, bai emaitzetan (praktika arrakastatsuak, hobetu beharreko alderdiak, eta abar)

Balorazio-irizpide horiek betetzen dituzten proiektuak hautaketa-prozesuaren azken urratsera pasatuko dira. Fase horretan, proiektuen balorazioa egiteko balorazio tekniko egin ahalko da, eta hura, era berean, kontsulta publikoarekin osatu beharko da


IKASITAKOAK: Prozesu irekian identifikatutako ezaugarri guztiak betetzen dituzten proiektu esperimentalak diseinatzea zaila denez, interesgarria litzateke lehentasuna ematea prozesuetan

berrikuntza sartzeko orduan gehien eragin dezaketen alderdiei edo lehendik martxan dauden eta partaidetzan berrikuntzak sartzen dituzten beste proiektu batzuen gainean berezitasun handiagoa duten horiei (ilab-etik balioa eman ahal izateko lehendik zegoen errealitateari), edo dagoeneko esperimentazioan dauden ekimenak osatzen eta aberasten dituztenei.

3. urratsa - HAUTAKETA-irizpideak

Ondoen baloratutako proiektuen artean, oreka bilatuko da ilab-ek babestu behar dituen proiektuen azken hautaketan, eta, horretarako, honako irizpide hauek aplikatuko dira:

- **Erakundeen lankidetzaren sortzeko gaitasuna**, horixe baita OPG Euskadiren 2018-2020 ekintza-planaren ezaugarrietako bat (gobernu irekian aurrera egiteko erakundearteko oinarria).
- **Proiektuen azken zerrendaren aniztasuna**, eremu instituzionalean ohikoak diren tresna edo mekanismoetako esperimentazioa herritar izaera handiagoa duten prozesuekin uztartzeko (diseinatu bateratuaren arabera), emaitzak instituzionalizatzeko orduan aurrera egite aldera. Era berean, gai ezberdinak jorratzeko beharrezko kontuan hartuko da, baita IRMren (ebaluazio-organo independentea) eta sustatzaile publiko eta pribatuaren kargura egindako 2018-2020 ekintza-planaren diseinua ebaluatzeko txostenean herritarren interesekotzat jo diren arloak jorratzeko beharrezkoak ere.



IKASITAKOAK: Sarea martxan dagoenean, koordinazio-taldeak agiri honen bidez zehaztutako hautaketa-irizpide horiek berrikustea komeni da, bai eta proiektu esperimentalak hautatzeko espazioa ilab-eko talde eragilerak handitzea ere. Talde hori, zehazki, erakundeek, eragile adituek eta gizarte zibil antolatuek osatuko dute. Halaber, beharrezkoa izango da ilab-ek babestu behar dituen ekimenen gehieneko kopuru bat zehaztea, beren ekarpena eta transferentzia bermatu ahal izateko.

KOMUNIKAZIOA: Fase hau amaitutzat emateko, beharrezkoa izango da hautatu diren proiektuen berri ematea. Hala, komunikazioa eskala bikoitzean emango da: ilab osatzen duten eragileen erkidegoari (motorrak, aktiboak –proiektu esperimentalen hasierarekin aktibatuko direnak– eta latenteak) informazio zehatzagoa eman beharko zaio proiektuei buruz, horiekin lankidetzan aritu daitezela errazteko, hala badagokio (helburuak, berrikuntza-elementuak eta abar). Halaber, komunikazio orokorra ere egin beharko da, proiektuak sozializatu eta ilab-i balioa emate aldera (albisteen bidez eta abar).


Proiektuaren fitxa

Proiektu esperimental bakoitzak ilab-en estilo-fitxa beteko du, proiektuentzat baliagarria izango dena, ilab proiektu batek zer dakarren eta bere egikaritzan zehar zein ezaugarri eta prozesu behar dituen hausnartzeko. Fitxa horretan honako atal hauek jaso ahalko lirateke, erabilgarriak izan baitaitezke proiektuaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko nahiz transferentzia gauzatzeko:

PROIEKTU ESPERIMENTALAREN PROPOSAMENA		
Identifikazioa		
Proiektuaren izena		
Sustatzailea		
Deskribapena		
Proiektuaren laburpena		
Lantzen duen erronka edo beharra		
Proiektuaren irismena		
	Prozesua, tresna edo produktua	
Balio-sorkuntza		
Proiektuaren onuradunak (nortzuk, funtzioak)		
Helburuak	Zerrendatu	


Mugarriak	Zerrendatu	Ezaugarriak	Data
Aurreikusitako gauzatze-aldia			
Aurreikusitako aurrekontua			
Gobernantza	Izena	Tipologia	
Espero diren emaitzak			
Proiektzioa	Epe labur, ertain eta luzea		
Espero diren emaitzak	Zerrendatu	Tipologia	

Transferentzia	Proiektuaren definizioa (zer)	Transferentziaren definizioa (nola)
Ebaluazioa		
Prozesua		
Eragina		
Emaiza		



3. fasea: Proiektu esperimentalak martxan jartzea

Testatu beharreko proiektuak hautatutakoan, etorkizuneko ilab sarearen eta proiektu esperimentalen arteko elkarrekintza eta jarduerarako protokoloa zein izango den zehaztu beharko da.



Horretarako, beharrezkoa izango da argi eta garbi identifikatzea hasiera-hasieratik proiektuaren ardura duen erakundeak nahiz sarearen talde eragileak eman beharko dituen urratsak. Garrantzitsua da, era berean, proiektuak martxan jartzeko modua kudeatzea, maila teknikoan nahiz politikoan, proiektu esperimentaletako bakoitzean lortu nahi den inpaktua eta sustatu nahi den anbizioa zehazteko.

IKASITAKOAK: OGP Euskadiren 2018-2020 ekintza-planaren esparruan, 3. konpromisoaren koordinazio-taldea izan da proiektu pilotuak martxan jartzeko orduan babes-zeregin horiek bereganatu dituenak. Ilab-a martxan jartzen denean, interesgarria litzateke zeregin hori talde eragileak (eragile publiko, sozial eta adituek osatutakoak) edo antzeko osaera duen lantalde batek hartzea beregain. Hasiera-hasieratik sartzen badira ikuspegi desberdinak, proiektuen definizioa aberastu egin daiteke, eta horrek elementu kritiko gehiago identifikatzeko balio dezake, arrakastaz ezar dadin. Behin garatuko den proiektua hautatuta, ilab sarea osatzen duten eragileen interesa bildu beharko litzateke, eragile latenteak aktibo bihurtu daitezkeen eta sare malgu eta dinamikoa osatu dadin, ilab-en kontzeptualizazioan jaso den bezala. Beharrezkoa litzateke gutxienezko baldintza batzuk zehaztea, esaterako: sartu daitezkeen gehieneko kide-kopurua, proiektuan txertatuko den ezagutza / gaitasuna (aurretiazko esperientzia antzeko proiektuetan, ezagutza metodologikoa, eta abar).

Proiektu esperimentalak martxan jartzeko, gutxienez bi bilera egitea proposatu da (bat maila politikoan eta bestea maila teknikoan), honako elementu hauek zehaztu eta adosteko, eta gomendagarria da proiektua abian jarri aurretik egitea, lortu nahi direnak doitzeko eta lankidetzaz-eredua zehazteko:

Maila politikoa


- **Lidergotza instituzionala:** erakundeko beste programa edo ekimen batzuekiko bateragarritasuna, proiekturako behar diren baliabideak, itzaropenak (partekatu eta egokitu)
- Ilab-en eginkizunetan eta erakunde liderraren **proiektuan rolak eta funtzioak argitzea**
- **Ilab-ek proiektuari emango dio balioaren proposamena zehaztea:** behar diren babesak, eskuragarritasuna, elkarrekintza-maila, baliabideak, eragileak zehaztea edo eragile kritikoaren tipologia, erkidegoko eragileen sarrera...
- Jardunbide ona **transferitu eta instituzionalizatu ahal izateko** (jarraitutasuna emateko) **konpromisoaren irismena zehaztea**
- **Proiektua hautatu eta martxan jarri izana iendaurrean azaltzea hala**

Maila teknikoa

- **Kontzeptualizazioa eta proposamen metodologikoa egiaztatzea,** proiektuaren irismena eta anbizioa balioesteko, herritarren partaidetzan berrikuntzak sartze aldera
- **Transferitu daitezkeen elementuak era bateratuan identifikatzea** eta ilab-en helburuei erantzungo dien transferentzia-elementu bat hautatzea
- **Ilab-en partetik behar diren babesak zehaztea** (zer behar duen ilab-ek balio-proposamenean jasotakotik)
- **Proiektuaren komunikazioa eta jarraipenerako prozesua zehaztea** (komunikazioaren maiztasuna, behar diren bileren kopurua, datak, bi aldeek beharrezko informazioa eta abar)

IKASITAKOAK: 2018-2020 ekintza-planaren 3. konpromisoko proiektu pilotuekin izandako esperientziak agerian uzten du garrantzitsua dela proiektua maila politikoan martxan jartzeko bilera bat egitea. Biler horretan, zehaztasun handiagoz partekatu beharko da ilab-aren testuingurua, eta lankidetzaren nahiz proiektu esperimentalaren balioa zehaztu beharko da. Maila teknikoan, hasieratik diseinu bateratuko prozesu bat sortzea lortu nahi da, bertan esperimentazioaren eta transferentzia-fasearen interesak azaltzeko. Proiektuaren inguruko erabakiak haren lider den erakundeak hartu behar ditu. Bestalde, ilab-ek aholkularitza eta orientazioa eman behar ditu, eta, era berean, transferentzia bermatu. Interesgarria litzateke ilab-en praktikaren erkidegoari aukera ematea proiektu esperimentalaren balio-proposamena eta diseinuak egiaztatu eta aberasteko, batez ere beren ezaugarrien zioz (esperientzia eta ezagutza aurretiko proiektuetan, proiektuaren xede den kolektiboaren ordezkartza, eta abar) ekarpen esanguratsuak egin ditzaketen eragileek parte hartzen dutenean sarean.

KOMUNIKAZIOA: Aurreko diagraman jasotzen den bezala, fase honetan bereziki garrantzitsua da proiektuaren eta ilab-en arteko barne-komunikaziorako kateak eta maiztasuna zeintzuk diren zehaztea. Beharrezkoa izango da proiektuan lankidetzan aritzen diren eragile desberdinen artean partekatu beharreko informazioa zein den zehaztea, proiektuaren beraren eta transferentziaren helburuak bete daitezen. Era berean, interesgarria izan liteke ikusgarri egitea bai proiektuak martxan jarri izana, bai eragileek partaidetzan berrikuntzak sartzearen alde duten konpromisoa, modu publikoagoan (prentsa-oharra, web-albisteak eta abar), ilab-en proiektua indartu ahal izateko eta ezagutza hori beste eragile eta erakunde batzuen artean sustatzeko.



Proiektu esperimentalen prozesuaren diagrama I. eranskinean jasotzen da, eta, helburu eta emaitzak kontuan hartuta, lau fase identifikatzen ditu, horiek guztiek partekatuko dituztenak, ilab-en nortasunaren adierazgarri: ENPATIZATU, hots, talde eragilea sortu, bere hedapen-plan eta guzti; ZEHAZTU, hots, irismena, abiapuntuko hipotesia eta baliabideak egokitu, modu eztabaidatuan bete dadin; TESTATU, edo, bestela esanda, probatu; eta EBALUATU ETA TRANSFERITU, ikasitako lezioak eta transferitu beharreko produktuak zehaztuta.

4. fasea: Proiektu esperimentalen artean lankidetzan eta elkarrekintzan aritzea

Ilab-en benetako ahalmena, partaidetzan berrikuntzak sartzeko praktikaren erkidegoa osatzen duten eragile desberdinen sarea den aldetik, honako hau izango da: **partaidetza eta lankidetzarako espazioak garatzeko gaitasuna**.


Proiektu esperimentalen eta ilab-en arteko lankidetzak berariaz lagundu beharko luke proiektu esperimentalen eta are ilab-en beraren garapena eraginkorragoa izateko orduan:

Proiektuak...

- Berritzaileagoak, ikuspegi, ezagutza eta esperientzia berriak txertatzen dituztenak
- Esperimentazioaren aldeko testuinguru-baldintzak dituztenak eta eragileen lan-sare bat dutenak, proiektuok modu aktiboan garatu daitezen eta ikaskuntza kolektiboko prozesu baten parte izan daitezen
- Beste ekimen antzeko eta osagarri batzuekin konektatu daitezen, ilab-en praktikaren erkidegoak identifikatzeko moduan

Erkidegoa

- Aktiboa, zeinetan eragileek lagundu egin ahal izango duten garatzen dauden proiektu ukigarrien jarraipena egiten eta horiek aberasten
- Gardena, trazabilitatea eta kontu-ematea sustatuko dituen
- Proiektu partekatuen garapenaren bidez eraikitzen dena eta bere gobernantza-eredua egiaztatzen duena, praktikaren bidez, bai eginkizun eta zereginen banaketan, bai proiektuekin eta lantaldeekin elkarrekintzan aritzeko mekanismoetan




Horretarako, interesgarria litzateke lan partekatuko dinamika bat zehaztea, eragile desberdinek (beren erantzukizunen arabera) parte hartu dezaten eta helburu bereiziak izan ditzaten:

Lankidetzak

Komenigarria litzateke lankidetzan aritzeko eta ikasteko prozesu bat garatzea **proiektu esperimentaletako talde teknikoaren artean**. Hau da, berdinaren arteko espazio bat sortu beharko litzateke, martxan jarritako berrikuntza-prozesuen gainean ideiak trukatu, erronkak eta erantzunak partekatu, eta zalantzak ebazteko, sarean lan egitearen ahalmena eta balioa zehazte aldera.

Diseinu bateratua eta kudeaketa partekatua

Ilab-en talde motorrean parte hartzen duten erakundek eta proiektuaren arduradunek partekatuko dute espazio hori, eta bere helburua, zehazki, berrikuntza-proiektuaren jarraipena egitea izango da (zailtasunak antzematea, sarearen babes posibleak identifikatzea eta abar). Halaber, proiektua sare osora transferitzen dela bermatuko du.



Egiaztatzea eta aberastea


Komenigarria litzateke prozesu eta lan-mekanismoak garatzea, sare osoa barnean hartuta, kontuak emateko eta proiektuen eta horien emaitzen egiaztapena sustatzeko. Plataforma digitalak eta bitarteko elektronikoak tresna erabilgarri eta eraginkorrak izan daitezke informazioa emateko eta ekarpenak jasotzeko, prozesuak irekitzen diren uneetan. Hala ere, aurrez aurreko lan-saioak ere garatu ahal izango dira.

2018-2020 ekintza-planaren esparruan garatutako pilotuetan, lan-espazio komun bat aktibatu da 4 taldeen artean, inspiratzeko, eta, batez ere, lortuko diren produktuen transferentzia bermatzeko eta hedapen-kateak eta -moduak partekatzeko, xede-publiko berei zuzentzen zaienean. Alarma-egoeraren ondorioz posible bada, plana amaitu baino lehen herriarrei eta erakunde publiko eta sozialei irekitako foro bat deitzea aurreikusten da, lortutako produktuen eta pilotuen aurrerapen-mailei buruzko kontuak emateko.

IKASITAKOAK: Pilotuak identifikatu eta martxan jartzeko epeen ondorioz atzeratu egin dira bai horien ezarpena, bai lankidetzak-prozesuak testatzeko unea, ilab-en diseinuaren fase honetan. Interesgarria litzateke behin sarea antolatuta, proiektu esperimentalen arteko eta ilab-en talde motorrarekiko lankidetzak-dinamikak garatzea proiektuak diseinatzeko fasean ere (ez soilik horiek ezartzea eta ebaluatzea, 2018-2020 planean egin dugun bezala). Era berean, erkidegoak zeregin are garrantzitsuagoa hartuko luke, baldin eta aldeztu aurretik zehaztu eta planifikatutako balira irekiera-uneak eta foro irekiarekiko elkarrekintzak. Proiektu esperimentalen diseinuan lan-prozesu bat sartu ahalko litzateke (zein eduki jorratu eta zelan), sarea osatzen duten eragileek diseinua, ezarpena eta ebaluazioa egiaztatze orduan egiten dituzten ekarpenak sartze aldera.

KOMUNIKAZIOA: Proiektu desberdinekin ezarritako barne-komunikazioaz gain, fase honetan bereziki esanguratsua izango da informazio irisgarri eta goiztiarra ematea ilab-en erkidegoari,


proiektuen aurrerapenei eta horietan parte hartzeko nahiz ekarpenak egiteko aukerei buruz. Informazio hori aldian-aldian eman ahalko litzateke, mezu elektroniko bidez, plataforma partekatuen bidez, edo aurrez aurre.



5. fasea: Emaizak ebaluatu eta transferitzea

Bai etorkizuneko ilab-en proiektu esperimentalek, bai 2018-2020 ekintza-planaren esparruan garatzen ari diren proiektu pilotuek ebaluazio eta transferentziako fase bat txertatu beharko dute. Horrek ez du esan nahi proiektuek ezin dutenik jarraitutasuna izan esperimentazio-fasetik harago, baina balizko jarraipena aztertu egin beharko da, berrikuntzak espero zen balioa gehitu duen ondorioztatzeko.

EBALUAZIOA egiteko, prozesu konplexu eta neketsuetan erori gabe, baizik eta mekanismo azkarretan eta erabakiak hartzen laguntzen duten horietan, interesgarria litzateke aztertzea zer gertatu den prozesuan zehar eta zein emaitza lortu diren. Hala, ebaluazio-prozesua erabilgarria litzateke, gainera, hasierako esparru teorikoan ezarritako ilab-en gobernantza-eredua eta kontzeptua egokitu eta zehazteko.




Bestalde, interesgarria izango da, proiektuak identifikatzeaz harago, ebaluazio bateratua egitea, ilab-en gainean. Ebaluazio horretan, proiektu esperimentaletan parte hartu duten eragileek nahiz sareko kideek berariaz baloratu ahalko lukete egindako kudeaketa eta komunikazioa, hobetu beharreko arloak identifikatze aldera (ebaluazio hori bi urtean behin egin liteke).

TRANSFERENTZIA mailan, garrantzitsua izango da proiektu bakoitzerako adostutako transferentzia-elementuaren jarraipena egitea eta, gainera, bermatzea azken transferentzia-produktua:

- Egokitu egingo dela adostutako diseinura, bai edukian, bai forman, proiektuko taldearen eta ilab-en talde motorraren eskutik
- Hizkuntza erraz eta ulergarria erabiliko dela, erraz ulertu eta erabili dadin
- Irigarria izango dela (sartzeko espazioak eta sarbideen formatuak), eta bi hizkuntza ofizialetan egongo dela


Garrantzitsua da azpimarratzea, proiektu desberdinen gaineko esperientzien eta ezagutzaren bidea areagotu eta ikaskuntza partekatua sustatzeko, **baliagarria izango dela transferentzia egitea, bai lorpenetan, bai hobekuntzetan**. Espero ziren emaitzak lortu ez dituzten proiektuetan (egikaritzan, hurbilketan...egindako akatsen ondorioz) jarraitutako prozesua kontatzea ezinbestekoa da berrikuntza kontuan hartuta.



Transferentzia-produktu horiek ilab-en ezagutza-biltegia izango dira, partekatu eta sarean berrerabiltzeko, beste eremu edo testuinguru batzuetarako.

IKASITAKOAK: Elementu kuantitatiboen ebaluazioa errazagoa da kualitatiboena baino, eta, beraz, interesgarria izan liteke ebaluazio-prozesu partaideren bat egitea, eremu hori bereziki lantzen duena, proiektu esperimental guztietarako ebaluazio-ereduaren prototipoa ezarri ahal izateko. Era berean, kontzeptualizazio-fasean ilab-ek arazoak eduki ditu produktuak hizkuntza errazean garatzeko. Transferentzia-produktuetan, lagungarria izan liteke lehen transferentzia-elementuen erabilera baloratu eta testatzea (erabileraren trazabilitatea, gailu edo tresnaren ulermena, transferentzia-elementuak eskuratzen dituen eragile-mota). Transferentzia gauzatzeko, beharrezkoa da ez soilik agiri eta material bideografiko irisgarriak edukitzea, baizik eta elkarrekintza partekatua garatzea, gaiaren gaineko konplexutasunaren arabera aurreikusi beharko dena. Horixe izango da ilab-en funtzioetako bat: egiaztapena, hedapena eta beste espazio edo eremu batzuetako aplikazioa erraztea, proiektu esperimentalaren lider izan diren beste eragile batzuekin lankidetzan.

KOMUNIKAZIOA: Funtsezkoa izango da, ebaluazio-prozesu partaideak garatzeko eta transferentzia eraginkorra bermatzeko. Komenigarria litzateke bi planotan planteatutako komunikazio-estrategia jorratzea. Lehenak, ekimenaren eskalagarritasuna sustatzeko helburua baitu, proiektuaren informazio zehatza eta teknikoak jaso beharko du, beste eragile batzuk bertara sartu daitezzen, modu irekian. Bigarrenak, komunikazioa eta hedapena bereziki lantzen baititu, formatu erraz eta komunikagarriak izan beharko ditu, egindako lanari balioa eman eta sarea ezagutarazteko.





I. ERANSKINA-Proiektu esperimentalen prozesuaren diagrama

HELBURUA

Ilab sarearen eragileak, ezagutza aditua, erakundeak, eta askotariko herritarrak (kopuruan eta ezaugarrietan) bildu eta inplikatzeko, proiektu esperimentalak zuzentzeko. Horretarako, hedapen irekia egin behar da.

Proiektuaren hasierako identifikazioan oinarrituta, haren irismena eta anbizioa, erantzun nahi diren galderak, proiektua betetzeko baliabideen beharrianak eta ilab-en babes zehatza finkatzea. Eztabaida-fasea.

Aurretiazko esperientziak eta ezagutza biltzea, pilotajea (martxan jartzea) adostea, bitartekoak aktibatu eta esku-hartzea gauzatzea, planteatutako galderei erantzuteko. Horretarako, jarraipena egiteko eta kontuak emateko sistema bat behar da.

Gertatutakoa modu partaidean ebaluatzea, diseinua, prozesua, emaitzak eta eraginak kontuan hartuta. Transferitu daitekeena, xede-publikoa, eta hedatzeko bide eta bitartekoak identifikatzea.

Enpatizatu**Zehaztu****Testatu****Ebaluatu
Transferitu**

Talde motorra eratzea eta proiektu esperimentalak modu irekian martxan jartzea.

Abiapuntuko hipotesia mugatzea. Zehaztapen teknologikoak, ekonomikoak eta pertsonekin lotutakoak –proiektuak behar dituenak– garatzea, irismen eta dimentsio zehatzaren arabera, artatu nahi den arazoari edo beharrianari erantzuteko.

Tresna, eredu eta abarren esperimentazio-prozesu irekia gauzatzea, abiapuntuko hipotesiaren gainean, gertatutakoaren ebidentziekin. Lankidetzak ezartzea sinergiak eta osagarriak dituzten beste proiektu esperimental batzuekin.

Ikasitako lezioak. Transferentzia-produktuak zehaztea, ilab-en tresna-kutxan sartzeko.

EMAITZA

II. ERANSKINA-OGP Euskadiren 2018-2020 ekintza-planaren 3. konpromisoaren esparruan garatutako proiektu pilotuak



AURREKONTU IREKIAK

Liderra: Gipuzkoako Foru Aldundia

Partaideak: Amurrioko Udala, Donostiako Udala, Mungiako Udala, Oñatiko Udala eta Santurtziko Udala

Laguntzailea: S&F

Pilotuaren xedeak: Euskadin (tokiko fokua) aurrekontu parte-hartzaileak diseinatzeko eta betearazteko askotariko eredu instituzionalak aztertzea eta ebaluatzea, modu parte-hartzailean, Euskadiko beste udalerri batzuetara eraman daitezkeen ikaskuntzak eta elementuak ateratzeko. Arreta honako hauetan jarriko da: 1) Aurrekontu parte-hartzaileen benetako ahala eta ekarpena, parte hartzeko gaitasun handiagoak sortuko dituen tresnatzat hartuta – Herritarrek aktibatzea; 2) Konfiantza eta hizkuntza komuna sortzea – Prozesuen mugen gaineko ezagutza handiagoa, komunikazio-estrategia eta hizkuntzaren egokitzapena, adostasunak...; 3) Aldaketa instituzionala – Prozesu parte-hartzaileen emaitzen inpaktua (eraginkortasun-terminoetan) edo emaitzen kudeaketa publiko hobea.

Transferentzia-elementuak: 1) Transferentzia-elementuak identifikatzea, aurrekontu parte-hartzaileen tresna hobetzeko, lehen azaldutako irizpideen arabera – *Zer transferitu //* 2) Transferentzia-mekanismoak identifikatzea – *Nola transferitu //* 3) Aztertutako kasuen inpaktuari buruzko txostena egitea. Txostenean guztia sartuko da: ez da kasu bakoitzaren txosten bat egingo. 4) Ebaluazio parte-hartzailearen prozesua kontatzea – *Pilotuaren komunikaziorako edukiak*. 5) Herritarren ebaluazioa gauzatzea

PARTE HARTZEKO PROZESUEN AHALMEN SALUTOGENIKOA

Liderra: Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila

Partaideak: Hernaniko Udala eta Bilboko Kulturen Arteko Esku-hartze Komunitarioaren Proiektua (Gazteleku Garapen Komunitarioko Elkarte, Bilboko Udaleko Osasuna eta Lankidetz, Bizikidetz eta Jaiak Arloak, La Caixa Fundazioa)

Laguntzailea: Solasgune

Pilotuaren xedeak: prozesu parte-hartzaileek erkidegoetan osasun pertsonal eta kolektiboa sortzeko duten ahala neurtzea eta ebaluatzea. Horri begira, udalerri batean esku-hartze komunitario bat egitea proposatu da (talde motorra, osasun-aktiboen mapaketa, herritarren gaitasunen aktibazioa, proiektu partekatuen identifikazioa...), eta herritarrek prozesu parte-hartzailea ebaluatzeko tresna bat garatzea (kontu-ematea). Eredu honen ondorioak, dagoeneko osasuna sortzen duen prozesu komunitario bat garatu duen udalerri baten esperientzia eta transferentziarekin batera, baliagarri izango dira prozesu parte-hartzaile batek (jatorrian osasun-ikuspegia eduki ala ez) erkidegoan eta pertsonengan ongizatea eta osasuna sortu dituela baieztatu ahal izateko adierazleak modelatu eta zehazteko.

Transferentzia-elementuak: 1) Prozesuek osasuna sortzen duten ala ez baieztatzea ahalbidetzeko adierazle-sistema, 2) osasun-aktibo komunitarioen mapaketa eta proiektu kolektiboen diseinua, 3) herritarrek ebaluazioa egiteko tresna.

THINKING FADURA

Liderra: Getxo Kirolak

Laguntzailea: Komunikatik

Pilotuaren xedeak: Partaidetza-prozesuan zehar antzemandako beharrizan bat dago: Fadurako itxarote-guneak eta ikasketa-lekuak hobetzeko premia, hain zuzen ere. Helburua espazioaren eta altzarien diseinu bateratua egitea da, ekonomia zirkularraren printzipioen arabera eta espazioarekin lotutako eragile guztien inplikazioarekin, behin prototipoak ezarri eta probatuta, Fadurako ikasketa-espazio osora eskalatzeko modukoa izan dadin. Laborategi honen bidez, elkarrekin sortutako irtenbidearen edo irtenbideen prototipo bat zehaztu nahi da, gutxienez.

Thinking Fadura proiektuak laborategiko logiken arabera garatzen dira; harremanetarako gailu edo espazioak dira, non erkidego bateko hainbat kidek erronka zehatzei heltzen dieten, testatu beharreko irtenbide berritzaileak aplikatuz, eta, arrakasta izanez gero eskala handiagora hedatu edo/eta beste inguru batzuetara transferitzen dute. OGP Euskadi aukera ona da laborategiko ikaskuntza berriak testatu edo ateratzeko: herritarren partaidetza-prozesuek toki-administrazioaren egiteko moduetan izan dezaketen inpaktua ebaluatu nahi dugu. Jakin nahi dugu ea herritarren partaidetzak zenbaterainoko inpaktua duen politika publikoak diseinatu eta egikaritzeko orduan, oso alderdi zehatzetan eraginda: kontratazioa, hirigintza, herritarren arreta, instalazioen mantentzea, eta abar.

Transferentzia-elementua:

Lau lan-fase proposatzen dira: 1) Ebaluazio-arloak identifikatzea. Besteak beste, erakundeak prozesuan duen inplikazioa, emaitzarekiko lotura, emaitzaren kalitatea (baldintza-agiri teknikoak), eta barne-kulturaren aldaketa. 2) Adierazleak definitzea. Prozesuko eta emaitzako adierazle zehatzen definizioa. 3) Datuak biltzeko mugarriak hautatzea. Behin laborategia diseinatuta, zehaztutako adierazleak jasotzeko uneak finkatzen dira: alde zurretikoak, prozesuan zeharrekoak, eta jarraipenaren testaren ostekoak. 4) Azken ebaluazioa gauzatzea.

ETORKIN REKALDE

Liderra: Bilboko Udaleko Partaidetza eta Herritarren Arreta Arloa

Partaideak: Rekalde Barrutiko Kontseilua

Laguntzailea: LUR Studio

Pilotuaren xedeak: Proiektu honen helburu nagusia da Errekalden etorkinen partaidetza areagotzen lagunduko duen prozesu bat (beste auzo, barruti edo udalerrri batzuetara transferitu daitekeena) diseinatu eta esperimentatzea.

Kontuan hartuta helburu nagusia, OGP Euskadiren testuingurua, Ilab-en konpromisoa eta Errekalderako udal-estrategia, helburu hauek planteatu dira proiektu horretarako:

1.- EZAGUTU ETA INFORMATZEA: egungo errealitatea ezagutzea eta barrutiaren aniztasunari eta kolektibo desberdinen arteko harremanari balioa ematea, partaidetza informatua bermatu dadin eta ahalik eta pertsona gehienek eta askotarikoek parte har dezaten, hori funtsezkoa baita

prozesuak arrakasta izan dezan. Horrekin lotuta, oso garrantzitsua da Barrutiko Kontseilua eta herritarren partaidetzarako beste bide eta tresna batzuk ezagutzea, zeintzuetara, beharbada, herritarrek ez baitute irispiderik.

2.- ESPERIMENTATU, EGIAZTATU ETA ADOSTEA; hausnartu, eztabaidatu eta ideiak emateko ekintza eta tresnak testatzea, partaidetzan berrikuntzak sartzea, parte hartuz berrikuntzak sartzea eta sarean berrikuntzak sartzea; ikuspegi desberdinak egiaztatu eta adostea; sortze bateratutik abiatuta, herritarren partaidetzarako tresna berriak gaitzea, etorkinen hurbilketa sustatzeko; eta Barrutiko Kontseiluaren lana indartzea, herritarren partaidetzarako organo eta tresna gisa.

3.- EBALUATU, HEDATU ETA TRANSFERITZEA; prozesuaren emaitzak eta ekarpenak ebaluatu eta hedatzea, elkartegintza indartuz eta elkarteek auzoaren gizarte-dinamizaziorako eragile gisa duten indarra azpimarratuz, partaidetza-prozesua modu sistematizatuan transferitu ahal izateko. Prozesua transferitu egin daiteke, bai gaiari dagokionez (etorkinen partaidetza), bai prozesuari dagokionez.

Transferentzia-elementuak: 1) Prozesua prestatzeko metodologia eta sistema (prozesurako oinarriak finkatzean datza: abiapuntuko dokumentazio teknikoa bildu eta aztertzen da, egoeraren lehen ezagutza lortzeko); 2) Esperimentazioa (kate, tresna eta partaidetza-ekintza desberdinak martxan jarri eta garatzea: aurrez aurrekoak eta digitalak; aholkularitza ematekoak –inkestak, elkarrizketak– eta adostasuna eraikitzeak –tailerrak eta saioak hainbat eragilerekin–, instituzionalak –Barrutiko Kontseilua– eta ez-instituzionalak –kalean, ikastetxeetan–, eta abar); 3) Ebaluazioa eta transferentzia (prozesuko emaitzen azterketa kuantitatibo eta kualitatiboa, jasotako ekarpenen eta adierazleen eta horien adostasun-mailaren arabera). Halaxe geratuko da islatuta, alde batetik, prozesuaren memorian, zeinetan berariaz dokumentatu eta bilduko baitira emaitzen laburpena eta haren gaineko balorazioa eta hausnarketa. Bestetik, prozesuaren transferentzia-gaitasunaren eta berezitasunaren gaineko memoria laburrago batean ere jasoko da. Memoria horrek, era berean, migratutako pertsonen partaidetza aktiborako kontuan hartu beharreko gakoak emango ditu. Gainera, fase honetan sartzen da partaideei itzulketa egitea eta emaitzak hedatzea, horiek benetan transferitu daitezkeen beste auzo, barruti eta udalerri batzuetara.

